

177. FITXA GIPUZKOA – Gabonetako turismoa dinamizatzeko Gipuzkoako udalentsako dirulaguntzak

Nori zuzendua: eskualde bakoitzean biztanle gehien duen udalerria, Estatistikako Institutu Nazionalak (INEk) argitaratutako azken errolda ofizialeko datuen arabera.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Gipuzkoako udalei gabonetako turismoa dinamizatzeko dirulaguntzak emateko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia onestea](#)

Eremuak: Turismoa

Zenbatekoa: 100.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/11/10 (12:00etan)

Laburpena

Dirulaguntzen helburua da laguntzak ematea Gipuzkoako mankomunitateek edo garapen-agentziek jarduteko dituzten hamar eskualde-eremuetako (hiriburua alde batera utzita, turismoa erakartzeko ahalmen handia baitu) **biztanle gehien dituzten udalerrien potentzial turistikoa bultzatzeko gabonetan**. Dirulaguntza horiek Turismo Zuzendaritzaren lurralde-gobernantzaren ereduaren barruan sartzen dira eta hurbileko turismoa sustatzen duten ingurune erakargarrien sorrera sustatzea dute helburu.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagunduko dira **udalerriko gabonetako apainketa-gastuak, hala nola argiztapen apaingarria eta espazio publikoetako apaingarriak**.

Gastuetarako aldi hautagarria

Laguntzaren xede diren jarduerak **2025-2026ko gabonetan** gauzatu beharko dira, eta jarduera guztiak gauzatu direla egiaztatzen duen kontua **2026ko otsailaren 28a** baino lehen aurkeztu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Jasotako laguntzak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren benetako kostuaren % 60. Gehieneko dirulaguntza **10.000 eurokoa** izango da udal onuradun bakoitzeko.